

Duela 10 urte sortu zen Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentzia (EFSA), eta orduan abiarazi zen **arriskuak balioesteko egitura sendoa**, Europan zientzia-aholkularitza ematen duena.

Urteurren hori dela eta, EFSAk bi hitzaldi antolatu ditu: bat, arriskuen balioespenaren arloko adituekin (Elika bertan izan zen), eta bestea, elikakateko partaide guztiekin. Foro horiek oso aukera baliotsua eman dute **EFSAren etorkizuneko estrategia diseinatzeko**.

ATZERA BEGIRA...

EFSAk Europako zientzia-komunitateak bere zientzia-aholkularitzarako egituran parte-hartze handia izatea lortu du, eta lankidetzak eta kooperazioa sustatu ditu Europako Elikagaien Segurtasunaren arloko erakunde eskudunekin.

Eta horrelaxe lortu du bere panelak nazioartean ezagunak izatea, lider gisa, Arriskuen Balioespenaren arloan. Horretarako, bikaintasun-, independentzia- eta gardentasun-printzipioak izan ditu oinarri.

Azken hamarkadan, EFSAk 3.000 zientzia-dokumentutik gora egin ditu, eta horietan zientzia-lan zehatzak eta kontrolak egiteko aukeren identifikaziorako zientzia-oinarria ematen duten arrisku-balioespenak biltzen dira. Horietako gehienak Europar Batasunean Elikagaien Segurtasunaren arloan dauden legeetan islatzen dira. Halatan, EFSAk argi utzi du Arriskuen Balioespenak kontsumitzaileen osasuna babesteko balio duela.



Aholkularitzaren egitura

EFSAk 10 zientzia-panel ditu Elikagaien Segurtasunak bere baitan hartzen dituen arloetan. Panel bakoitza zientzia-bikaintasunaren arabera hautatutako 21 adituk osatzen dute. Panel horiek bi talde handitan banatzen dira:

- ✓ **Arriskuen Balioespenerako panelak:** Animalien, landareen zein EBko biztanleen arriskuekiko esposizioa balioesten dute.
- ✓ **Araututako Produktuen Segurtasuna balioesteko panelak:** Araututako produktuen segurtasuna balioesten eta zientzia-oinarria ezartzen dute, EBN produktu baten erabilera baimentzeko edo ukatzeko.

Horiez gain, **Zientzia Batzordea** dago. Batzorde hori panel bakoitzeko presidentek eta 6 adituk osatzen dute, eta bere egitekoak diziplina anitzeko gaiak jorratzea da.

Hurrengo taulan adierazten da EFSAren panelak eta horien lan-eremua, bai eta azken hamarkadan gauzatutako ekintzak ere.

EFSAk, halaber, barne-egitura zabala garatu du, panelei euskarria eskaintzeko: gidaliburuak, lan-prozedurak eta arriskuak balioesteko metodologiak.

Taula 1: EFSaren Panelak eta azken hamarkadan egindako lana.

Panela	Eremua	Bileren kopurua	Dokumenten kopurua	Dokumentu mota
SC Zientzia Batzordea	Arriskuen Balioespenerako prozeduren oinarria ziurtatzeko eta panelen iritzien kalitatea eta gardentasuna bermatzeko koordinazioa. Arriskuen balioespena diziplina anitzeko auzietan.	50	400 lan-talde baino gehiago	Arriskuak balioesteko jardunbide egokien gidak. Balioespena egiteko prozedurak, metodologia berritzaileen bidez. Diziplina anitzeko zientzia-iritziak.
AHAW Animalien Osasuna eta Ongizatea	Elikagaietarako animalien osasuna eta ongizatea.	72	85	Animalien Osasunaren inguruko 47 iritzi. Animalien Ongizateari buruzko 38 iritzi.
BIOHAZ Arrisku biologikoak	Elikagaien bidez transmititutako zoonosiak, elikagaien mikrobiologia eta higiena, mikrobioen aurkako erresistentzia, entzefalopatia espongiforme transmitigarriak eta hondakinen kudeaketarekin lotutako auziak.	76	81	Zientzia-literaturaren laburpenetatik ebaluazio kuantitatiboetarako.
CONTAM Kutsatzaile kimikoak	Elikagaietan eta pentsuetan kutsatzaile kimikoekiko esposizioa (mikotoxinak, itsas biotoxinak, kokzidiostatikoak, metalak, prozedura-kutsatzaileak, COP eta abar).	56	107	Zientzia-dokumentuak: - % 56 elikagaien inguruan. - % 44 pentsuen inguruan. Eguneko Ingesta Toleragarriak ezartzea.
PLH Landareen osasuna	Landareen osasunerako arriskutsuak diren organismoak: uztak galtzeko arriskuan jartzen dituzten izurriak eta biodibertsitatea kaltetzen duten espezieak.	40	> 70	Arriskuen balioespena eta izurriak balioesteko metodologiei buruzko gida.
FEEDAP Animalien elikadura	Animalien, ingurumenaren, produktu eratorrien kontsumitzaileen eta pentsuen gehigarriak manipulatzeko dituzten segurtasunaren balioespena. Eraginkortasunaren balioespena. Segurtasun-tarteak ezartzea.	91	> 400	% 47 gehigarri zooteknikoak % 20 gehigarri teknologikoak % 16 gehigarri nutrizionalak % 9 gehigarri sentzorialak % 8 kokzidiostatikoak
ANS Elikagaietako gehigarriak eta elikagaien gehitzen zaizkien nutrienteak	Segurtasuna gehigarrien erabileran, nutriente-iturriena eta elikagaiei nahita gehitzen zaizkien beste substantzia batzuen, aromak eta entzimak izan ezik.	31 + 36	90	Gehigarrien balioespena, beste aplikazio batzuetarako Baimendutako gehigarriak berriz balioestea. Elikagaiei gehitu beharreko nutrienteen iturriak balioestea. Eragin nutrizional edo fisiologikoa duten beste substantzia batzuk balioestea.
CEF Elikagaiekin kontaktuan dauden materialak, entzimak, aromak eta prozesu-laguntzaileak	Elikagaien kontaktuan dauden materialak, entzimak, aromak eta laguntzaile teknologikoak Ekoizpen-prozesuekin lotutako auziak.	31 + 30	>2300	2067 substantzia aromatiko. 11 ke-aroma. Elikagaiekin kontaktuan dauden 247 material.
PPR Landareak babesteko produktuak eta horien hondakinak	Landare-osasunerako produktu gisa osasunean eta ingurumenean eragin dezaketen arriskua balioestea.	61	> 1200	Substantzia aktiboan toxikotasunaren, horien metabolitoen eta metatze-eragin posibleen balioespena Baimendutako Gehienezko Mugak (LMRak) ezartzea.

Taula 1: EFSAren Panelak eta azken hamarkadan egindako lana (geh.)

Panela	Eremua	Bileren kopurua	Dokumenten kopurua	Dokumentu mota
NDA Produktu dietetikoak: nutrizioa eta alergiak	Bitaminen eta mineralen ingesta toleragarrien maila, elikagai berrien segurtasuna, elikagai-alergenoak, produktu dietetikoak, herritarrentzako erreferentziako ingesta eta elikagaien nutrizio- eta osasun-propietateak.	49	> 650	Batik bat, elikagai berriak, elikagaien osasun-propietateak eta etiketan alergenoen aldi baterako salbuespena baimentzeko erantzunak.
OMG Genetikoki Eraldatutako Organismoak	Genetikoki eraldatutako landareen, mikroorganismoen eta animalien kaltegabetasuna gizakientzat, animalientzat eta ingurumenarentzat.	77	> 150	OGMak merkaturatzeko baimen-eskaeren arriskuen zientzia-balioespena.

ETORKIZUNeko ESTRATEGIA...

“Arriskuen Balioespenaren mugei aurre egiten – esperientziak partekatzen” (Parma, Azaroaren 7a eta 8a)

Azaroaren hasieran, EFSAK hitzaldi bat antolatu zuen Parman. Bertan, hainbat diziplina, erakunde eta eremu geografikotako 650 aditu baino gehiago bildu ziren, arriskuen balioespenaren mugen inguruan eztabaidatzeko eta etorkizuneko joerak aztertzeko.

Honako hauek izan ziren hitzaldiaren ondorioak:

1. **Zientzia etengabe ari da garatzen**, eta hori erronka handia da arriskuen balioespenerako.
2. **Ezinbestekoa da galdera egokia egitea**, balioespena eskaeraren xedera egokitzeko.
3. **Zaila da datuak eskuratzea**; beraz, beharrezkoa litzateke sarbide irekiko datu-base erkideak estandarizatzea eta horretarako teknologia berrien erabilera sustatzea.
4. Arriskuen balioespena egiteko **metodologia ugari dago garatuta**, eta horiek bateratu egin beharko lirateke, arriskuak balioesten dituzten zientzia-panel eta erakundeak balioespen homogeneoak egiteko.

5. **Funtsezkoa da arriskuen ebaluatzaileen eta kudeatzaileen arteko komunikazioa hobetzea**, aginduaren aurkezpenetik emaitzaren jakinarazpeneraino: arriskuak haztatzea onuren aurrean, eraginak, zalantzak, arriskuak kudeatzeko erabakien gardentasuna...
6. Interesgarria izango litzateke oso gai zehazten inguruko **zientzia-hitzaldiak antolatzea** noizean behin, diziplina anizteko adituekin batera.

Hitzaldian etorkizunean arriskuak balioesteko erronka berriak identifikatu zituzten, besteak beste: ingurumen-arriskuen balioespena, hainbat kutsatzaileen eragin sinergikoa, alderdi soziologiko eta ekonomikoak edo prestakuntza-beharra, zientziaren berri emateko Elikagaien Segurtasunaren kudeatzaileei.

“Etorkizuneko erronken aurrean prest” (abenduaren 13a)

EFSAK, bere hamargarren urteurrena ospatzeko, goi-mailako hitzaldi bat antolatu du Kontsumitzailea Babesteko Zuzendaritza Orokorrekin (DGSanco) batera. Oraingo honetan, EFSAK elikakatean nolabait parte hartzen duten agente guztiak bildu zituen: nekazaritza sektoretik elikagaien industrieraino, kontsumitzaileak eta elikagaien segurtasunaren inguruan lanean diharduten erakundeak barne.

Hitzaldian berretsi egin zen Europako Agintaritzak Osasun Publikoaren lehentasunak (zoonosiak, kutsatzaile kimikoak elikagaietan eta obesitatea) lantzen jarraitu beharko duela, eta hainbat faktorek bultzatutako erronka

berriei aurre egin beharko diela. Honako hauek dira faktore horietako batzuk: zientzia-eta teknologia-aurrerapenak, globalizazioa, garapen ekonomiko eta soziala, klima-aldaketa eta lege-arloko lehentasun berriak.

ONDORIOAK

- ✓ **Arriskuen Balioespena ezinbesteko lanabesa da** Elikagaien Segurtasunaren arloko kudeatzaileentzat; izan ere, zientzia-aholkularitza independentea, onena eta eguneratuena ematen die, Elikagaien Segurtasunaren arloan politikak abiarazteko.
- ✓ Beharrezkoa da **zientzia-bikaintasuna** zaintzen jarraitzea eta **arriskuen balioespenen erabilera optimizatzea**. Halaber, oso baliagarria litzateke arriskuak balioesteko **metodologia bateratzea**, arriskuak balioesten dituzten zientzia-panel eta erakunde guztiek homogeneotasuna izateko.
- ✓ Oinarri-oinarrizkoa da elikagaien **arriskuekin lotutako datuak biltzen dituzten datu-base bateratuak** izatea.
- ✓ Premia handiko lehentasunetako bat da **arriskuen komunikazioaren arloko prestakuntza** jasotzea.



ESTEKA INTERESGARRIAK:

Arriskuen analisiei buruzko informazio zabalagoa – [ELIKA](#)

EFSA. [“Challenging boundaries in risk assessment – sharing experiences”](#) Parma, 7-8 nov. 2012

EFSA. [“Ready for challenges of tomorrow”](#) Parma 13 nov. 2012

EFSA Journal, oct. 2012. [Special Issue](#): Scientific achievements, challenges and perspectives of the European Food Safety Authority: Taking stock of the 10 years activities and looking ahead.

Elikadura-Segurtasunerako Agintea Europarra - [FAQs](#)